

1999KO APIRILAREN 14AN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamalau

HILABETEA: Apirila

URTEA: Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak eta berrogeita hamabost.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Lau (4)

MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua

BILDUA: Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Luis Elorza Mujika

ETORRIGABEA: Jose Ignacio Insausti Mujika

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko martxoaren 5eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- FAKTURAK

15.534.227 pta.ko eta 61.006,91 euro zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengoa erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiek dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

3.- OBRA ZIURTAGIRIAK

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez Gernika Pasealekua birmoldatzeari buruz ondorengo obra ziurtagiriak onartu dira:

- Laugarren obra ziurtagiria: 17.033.464 pezeta (102.373,18 euro)

- Bosgarren ziurtagiria: 24.317.059 pezeta (164.178,83 euro)

4- OBRA ADJUDIKAZIOA

Construcciones Arrugaña eta Martin Eceiza jaunak Aranzazu kaletik Joan XXIII kalera dauden eskaileren birmoldaketa obrak kontratatzeke aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, hirigintza batzordearen aldeko txosten izanda, aho batez onetsi da ondorengo erabakia:

Lehenik. Aipatutako obren kontratazioa Construcciones Arrugaña enpresari 5.531.769 pezetako (33.246,60 euro) zenbatekoarekin adjudikatzea, ondorengo zehaztasun hauek kontuan hartuz:

- Egikaritze epea zazpi astekoa izango da da zuinketa akta jasotzen denetik kontatzen hasita.

- 244.630 pezetako (1.470,26 euro) behin-betiko fidantza aurkeztu beharko du.

5- OBRA BAIMENAK

29 HAn pabiloia egikaritzea

Ezagutzera eman da, ARAN C.B. enpresak, Beasaingo 29 HAn pabiloi bat eraikitzeke proiektu bat aurkeztu duela.

Aldez aurretik, arkitektoaren eta hirigintza batzordearen aldeko txostenaren arabera, aho batez lizentzia ematea erabaki da baldintza hauekin:

- Egungo Arau Subsidiarioen arabera, gehiengo aprobetxamendua, jarritako zoru probatuaren %50a izango da. Horretarako, eraikinari 1000 metro karratuko zoru esleituta egoteak kreditatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

- Iharduera industrialarentzat lizentzia lortzeko dagokion proiektua aurkeztu beharko du.

- 29 HA behar den moduan garatu dadin, poligonoko urbanizazio gastuetan parte hartzeko konpromezua bermatzeko 3.500.000 pezetako fidantza aurkeztuko du.

Eraikinaren atzealdeko sarbideek ez dute bide-zorrik sortuko, eremu horretan okupatuta ez dauden lursailen eraikigarritasun ahalmena bermatzeko.

Construcciones Electromecánicas Sempere enpresako pabiloia handitzea.

Ezagutzera eman da, Gregorio Cano Contrucciones Electromecánicas Sempere enpresaren ordeaz, egikaritze proiektua aurkeztu duela 23 Hirigintza Areatan egun duen pabiloia handitzeko.

Aldez aurretik, arkitektoaren eta hirigintza batzordearen aldeko txostenaren arabera, aho batez lizentzia ematea erabaki da baldintza hauekin:

- Enpresaren "iharduera-proiektua" eguneratuta aurkeztuko du, iharduera irekitzeko baimena eman aurretik, behar diren izapide administratiboak egin ahal izateko.

- Ondorengo kontzeptu eta kopuruekin bi abal hauek aurkeztuko dira:

605.805 pezetakoa, eraikigarritasun gehiegizkoagatik. Izan ere Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziak 58 metro karratu pabiloia handitzeko aukera ematen du.

4. 492.724 pezetakoa, urbanizazio kuotarena.

Azken kopuru hau, 104.187.720 pezetako den hirigintza proiektuaren aurrekontuan, enpresak izan behar duen partizipazioa kalkulatu ondoren sortu da.

6- ABAL ITZULKETA

Construcciones Biargik eskatutako abalaren itzulketa

Ezagutzera eman da Construcciones Biargi enpresak Urbieta etxean egin zituen obragatik jarritako behin-betiko abala bueltatzea eskatzen duela epea igaro delako. Hirigintza batzordearen aldeko txosten izanda, aho batez, 2.399.895 pezetako abala bueltatzea erabaki da.

7- EGUTEGIAK. Udal zerbitzu desberdinen egutegiak onartzeko proposamena.

Gobernazio batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez onartu dira 1999rako ondorengo udal-zerbitzuen egutegiak:

- Udaltzaingoa
- Udaltzainburua
- Udaltzaingoko administrari laguntzailea.
- Udaltzaina: lanaldi zatitua
- Bulego orokorrak.

- M^a José Perez Veitez.
- Gizarte-Ongizate arloa.
- Etxe-garbitzaileak.
- kalegarbitzaileak.
- Zaborbilketa.
- Obrak eta Iñigo Apaolaza.
- Liburutegia.
- Ezkiaga auzo-etxea.
- Lourdes Arostegi.
- Miren Kortaberria

8- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.